

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

30/2021 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, 8/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, azaroaren 16koa, baliozkotzeko dena, aldatzeko hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren araudia, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko epaira egokitzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko abenduaren 15ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

30/2021 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, 8/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, azaroaren 16koa, baliozkotzeko dena, aldatzeko hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren araudia, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko epaira egokitzeko.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, azaroaren 16ko 8/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, aldatzeko hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren araudia, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko epaira egokitzeko.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da azaroaren 16ko 8/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, aldatzeko hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren araudia, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko epaira egokitzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 15a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA